

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3765

AGINDUA, 2021eko ekainaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita dirulaguntzak emateko erregimena 2021ean egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan.

Agindu honen bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dirulaguntzen lerro bat ezartzen du kirol-erakundeei parte hartzen laguntzeko bai nazioarteko esparrua eta izaera duten kirol-lehiaketa ofizialetan, kategoria absolutuan, bai emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan.

Deialdi hau egiten da Eusko Jaurlaritzaren iritziz oso garrantzitsua delako nazioarteko kirol-lehiaketetan parte hartzera zuzendutako jarduerak sustatzea, hori funtsezko elementua baita euskal kirola nazioarteko esparruan egon dadin, eta kirol-jarduera sustatzeko oro har. Emakumezkoen kirolak duen garrantziaren isla ere bada, eta sustatu nahi da euskal taldeek maila goreneko lehiaketetan parte har dezatela eta izan daitezela kirolekako praktika orokorra sustatzeko pizgarria.

Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen arabera, goi-mailako kirola herri-interesekoa ere bada; izan ere, batetik, funtsezko faktorea da Euskal Autonomia Erkidegoan oinarritzeko kirola garatzeko, eta, bestetik, Estatu-mailako eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan errepresentazio-funtzioa du. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio komunei ematen die goi-mailako kirola antolatu eta sustatzeko eskumenaz baliatzeko ahalmena.

Agindu hau Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2021-2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da. Sail horretako sailburuak onartu du plan hori, eta aipatutako sailaren webgunean dago argitaratuta.

Kontuan hartuta zer xedatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen II. tituluaren IV. kapituluak, modu aktiboan hartuko da aintzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua, diruz laguntzekoa den programa hau landu eta aplikatzeko orduan.

Hortaz, kirol-jarduerak dirulaguntzak jaso ahal izateko zer eskakizun eta irizpide bete behar dituzten zehaztu behar da, bai eta aipatutako dirulaguntza horien eskabidea, izapideak eta emakidak erregulatzeko arauak ezarri ere.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– 2021ean egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko esparrua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen kategoria absolutuko liga estataletan parte hartzeko dirulaguntzak emateko erregimena ezartzen du agindu honek, artikulua honetan jasotzen diren baldintzei jarraikiz.

Agindu honen ondorioetarako, nazioarteko esparrua eta izaera duten kirol-lehiaketa ofizialtzat joko dira nazioarteko federazio baten, Europako federazio baten edo nazioarteko profesionalen liga

baten egutegi ofizialean sartzen diren lehiaketak. Emakumezkoen liga estatalak izango dira federazioaren edo liga profesionalaren egutegi ofizialeko maila gorenekoak, kategoria absolutukoak.

Goi-mailako kirola sustatzeko xedea izan behar dute lehiaketa horiek. Ez da dirulaguntzarik emango funtsean partaidetzako kirola sustatzera bideratuta dauden jardueretarako (jolaserako, aisiarako eta osasunerako kirola), ez eta selekzioek parte hartzen duten kirol-lehiaketetarako ere.

2.– 2021. urtean hasten diren ekitaldietarako ematen diren dirulaguntzak ezingo dira erabili urtealdi horretatik kanpoko gastuak ordaintzeko. Dirulaguntzaren xedeko gastuak parte-hartu den lehiaketako alderdi hauei dagozkie: garraioa, ostatua, ekipajea eta logistika.

2. artikulua.– Laguntza-lerroak eta aurrekontu-zuzkidura.

1.– Deialdi honetako dirulaguntzetarako, gehienez ere, 700.000,00 euro daude, dirulaguntza-lerroka honela banatuta:

a) Laurehun eta hirurogeita hamar mila (470.000,00) euro, kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko esparrua eta izaera dutenetan, eta kategoria absolutuan parte hartzeko dirulaguntzak emateko, eta horietatik 329.000,00 euro 2021. urteko konpromiso-kredituei eta 141.000 euro 2022. urteko konpromiso-kredituei dagozkie.

b) Berrehun eta hogeita hamar mila (230.000,00) euro emakumezkoen liga estataletan parte hartzeko dirulaguntzak emateko, horietatik 161.000,00 euro 2021. urteko konpromiso-kredituei eta 69.000,00 euro 2022. urteko konpromiso-kredituei dagozkie.

2.– Aurkeztutako eskabideak dagokion prozeduraren bidez izapidetuko dira, eta horien ebazpenak hartu behar ditu interesdunek mahaigaineratutako alderdi guztien gaineko erabakiak.

Modalitate bakoitzean adierazitako zuzkidura dena dela ere, eskabiderik ez dagoelako edo eskakizunak betetzen ez dituztelako modalitateetako batean ezarritako diru-kopurua agortzen ez bada, kreditu-soberakin hori beste modalitatetarako zenbatekoa handitzeko erabiliko da, betiere delako modalitate hori artean erabaki gabe badago.

Eman beharreko dirulaguntzen kopuru osoa ez da aipatutako zenbatekoa baino handiagoa izango, edo, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira, gehikuntzatik ateratzen dena baino handiagoa. Hori horrela bada, horren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariaren ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Erakunde onuradun izateko baldintzak.

1.– Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte legez eratuta eta dagokien erregistroan inskribatuta dauden kirol-klubek, kirol-elkartek eta helburutzat kirola duten nortasun juridikoko erakundeek. Kirol-federazioek ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu.

2.– Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan azaldutako egoeretariko edozeinetan dauden pertsonak edo erakundeak.

Ezin izango dute deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzarik lortu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalen bat duten erakundeak, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legeko debekuren bat dutenek ere. Halaber, ezin izango dute dirulaguntzarik lortu, zehapenak ezarritako epean zehar, sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalen bat dutenek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

Halaber, dirulaguntza hau ezin izango dute jaso Kultura eta Hizkuntza Politikako Sail honek lehiaketa beragatik bideratutako dirulaguntza izendun hartu duten erakundeek.

3.– Era berean, onuradunek egunean izan behar dituzte zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, eta dirulaguntza-itzultzearen ordainketak. Erakunde onuradunei dirulaguntza horiek emateko, eta, bidezko denean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei. Dirulaguntza horiek emateko, eta, bidezkoa denean, ordaintzeko, halaber, ezinbestekoa izango da halako prozeduretan jasotako dirulaguntzak itzultzea, baldin eta hala eskatzen duen ebazpena ematen bada itzulketa-prozeduraren bukaeran.

Pertsona edo erakundeek dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean dituztela ulertuko da zorrak geroratuta eta bermatuta daudenean edo itzulketa-ebazpena aurkaratzean zorrak etetea erabaki denean.

4.– Katgoria absolutuko emakumezkoen liga estataleki dagokienez, erakunde eskatzaileek parte hartu beharko dute nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko aukera dakarten maila goreneko lehiaketa estataletan, eta hirurehun mila (300.000) euroko gutxieneko aurrekontua izan behar dute. Kanpoan utziko dira futboleko ligak.

4. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Emakumezkoen katgoria absolutuko liga estataletan parte hartzeko kasuan diru kopurua berdinbanatuko da, eskatutako dokumentazioa aurkeztu, 1. eta 3. artikuluen baldintzak bete eta gero.

2.– Laguntzen zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionalaren irizpidea erabiliko da. Alegia, eskabideek agindu honen 11. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz balorazio-fasean lortu duten puntuazioaren arabera banatuko da proportzionalki testu bereko 2.1.a) artikuluan adierazitako diru-kopuru osoa, betiere, ezarritako gehieneko diru-kopurua errespetatuta, edo, txikiagoa bada, eskatutako kopurua.

3.– Dirulaguntza gehienez laurogeita hamar mila (90.000) eurokoa izango da erakunde eskatzaile bakoitzeko, bi lerroetako batean ere ez. Era berean, kirolari bakoitzeko dirulaguntza hamar mila (10.000) eurokoa izango da gehienez.

4.– Futbol Profesionaleko Ligan, Asobalen edo ACBn parte hartzen duten erakunde onuradunen kasuan, gehienez ere agindu honen 2.1.a artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura osoaren % 5 banatuko da haien artean.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Erakundeek dirulaguntza bide elektronikotik izapidetu behar dute nahitaez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Erakunde interesdunek euskadi.eus egoitza elektronikoaren bidez gauzatu ahal izango dituzte eskabideari lotutako izapide guztiak, helbide hauetan: www.euskadi.eus/zerbitzuak/0130009 non eskuragarri daude kanal elektronikoaren bidez izapidetzeko zehaztapenak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak.

Eskabidearen ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Elektronikoki ere izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

4.– Erakundeek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

5.– Eskabideak aurkezteak berez dakar berariaz eta formalki onartzea deialdi honetako oinarrietan zehaztutako baldintzak.

6.– Erakunde eskatzaileek eskaera bakarra aurkeztuko dute Kirol modalitate bakoitzarentzat. Bat baino gehiago aurkezten badute, dagokion zuzenketa eskatuko zaie.

6. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, behar adina aldiz, laguntzak eskatu dituzten erakundeek beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, eta, horretarako, ez da behar erakunde/pertsona eskatzailearen oniritzirik, betiere Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuena– xedatutako baldintzetan. Hala ere, eskatzaileak aurka egin ahal izango du eta, kasu horretan, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar ditu.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak 50.6 eta 51.1 bis artikuluetan xedatutakoa aplikatzeko, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da, normalizatutako eskabidean, honako betebeharrak hauek bete direla:

– Helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

– Erakunde eskatzailea legez eraturik eta Eusko Jurlaritzaren kirol-erakundearen erregistroan inskribatuta dagoela (beste erregistro bat bada, adierazi zein).

– Erakunde eskatzaileak edozein hedapen-modutara adierazi behar du ekitaldian parte hartzeagatik Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jasotzen duela eta Eusko Jurlaritzako Jarraieraren Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza ekitaldian parte hartzearekin lotutako ekitaldi publikoetara deitzen duela, salbu eta dirulaguntza ekitaldia egin ondoren ematen bada; kasu horretan, honako hauei egindako dokumentazioan jasoko dute parte hartzea: Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik.

– Erakunde eskatzaileak ez du izan behar dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zehapen administratibo edo penalik, ez eta dirulaguntzak jasotzeko legeko debekurik ere, sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak barne, hala xedatuta baitago Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko inongo erregistro publikotan izena emanda ez dauden erakundeen kasuan, erakundearen eratze-eskribtura eta estatutuak.

4.– Ordezkaritza egiaztatzeko, hala dela sinesgarritasunez erakusten duen edozein bide erabili ahal izango da, zuzenbidean baliozkoa bada.

7. artikulua.– Jarduera azaltzeko dokumentazioa, eskabidearekin batera aurkeztu beharrekoa (I. eranskina).

1.– Jardueraren memoria, hurrengo informazioarekin (II. eranskina):

– Baloratu beharreko lehiaketak edo liga. Goi-mailakoen artean 2 aukeratu. Banaka parte hartzen duten kirolen kasuan, 2 proba aukeratuko dira parte hartzen den proba guztien artean.

– Proba hori programa olinpikoan sartuta dagoen ala ez.

– Nazioarteko Federazio baten egutegi ofizialean dagoen ala ez.

– Baloratu beharreko lehiaketan edo lehiaketetan kirolariak lortutako postua. Artean ez bada lehiaketa egin, aurreko urtean lehiaketa horretan edo maila horretako edo goragoko beste lehiaketa batzuetan (halakorik izanez gero) lortutako emaitzak egiaztatu beharko dira.

– Parte-hartzearen jarraitutasuna. Zenbat urtetan parte hartu duten nazioartean azken 10 urteetan. Emakumezkoen liga estatatalen kasuan, azken 10 urteetan liga estatalean izandako parte-hartzearen baliokidea.

– Lehiaketan goi-maila duten euskal kirolariak, Eusko Jaurlaritzaren edo Kirolen Kontseilu Gorenaren zerrendetan errekonozituak.

– Lekualdatutako kirolari eta teknikarien kopurua: jardunaldi-kopurua eta horiek non egin diren, bai eta lehiaketa-tokira bitarteko distantzia ere.

– Interesgarritzat jotzen den beste edozein datu.

2.– Dirulaguntzaren xede izango den proba edo liga barne hartzen duen nazioarteko federazioaren, Europako federazioaren edo nazioarteko profesionalen ligaren egutegi ofiziala, bai eta ekitaldia antolatzen duen erakundearekin eta dagokion nazioarteko federazioarekin, Europako federazioarekin edo profesionalen ligarekin harremanetan jartzeko helbide bat ere.

3.– Kasuan kasuko federazioaren ziurtagiria, lehiaketan lortutako kirol-emaitza egiaztatzen duena. Artean ez bada lehiaketa egin, aurreko urtean lehiaketa horretan edo maila horretako edo goragoko beste lehiaketa batzuetan (halakorik izanez gero) lortutako emaitzak egiaztatu beharko dira.

4.– Kasuan kasuko nazioarteko federazioaren ziurtagiria, azken 10 urteetan nazioartean zenbat aldiz hartu duten parte egiaztatzen duena. Emakumezkoen liga estatatalen kasuan, azken 10 urteetan liga estatalean izandako parte-hartzearen baliokidea.

5.– Kasuan kasuko federazio espainiarraren ziurtagiria, modalitate horretako EAEko kirol-federazioa federazio horretan sartuta dagoela egiaztatzen duena, salbu eta modalitate horretako federazio espainiarra existitzen ez bada.

6.– Dirulaguntzaren xede den jardueraren sarreren eta gastuen aurrekontu orekatua (III. eranskina).

7.– Dagoeneko eginda dauden jardueretarako, egindako gastuak egiaztatzeko, agindu honen 16. artikuluan ezartzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

8.– Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza ekitaldian parte hartzeari lotutako ekitaldi publikoetara gonbidatzeko konpromisoa, dirulaguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; azken egoera horretan, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten dokumentu guztietan adierazi beharko dute hori.

9.– Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak dirulaguntza emateko beharrezko irizten duen adina dokumentazio osagarri eskatu ahal izango du.

10.– Emandako dokumentazio guztiak hizkuntza inklusibo eta ez-sexista izan beharko du. Gainera, emandako datu guztiek sexuaren arabera bereizita egon beharko dute.

8. artikulua.– Eskabide eta dokumentazio-akatsak zuzentzea.

Eskabidea izapidetzeko eskatzen diren agiri batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daukela ikusiz gero, edo eskabidea baloratzeko aurkeztutako agirietan akatsak aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari huts-egitea konpontzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio ezen, hori egiten ez badu, haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, alde zuzenetik, dagokion ebazpena emango da.

Erakunde eskatzailearen batek eskabidea presentzialki aurkeztu badu, zuzenketak aurkezpen elektronikoaren bidez egiteko eskatuko zaio. Ondorio horietarako, aurkezpen elektronikoa egin den eguna hartuko da eskabidea aurkezteko datatzat.

9. artikulua.– Programa kudeatzeko eskumena duen organoa.

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak du agindu honetan araututako dirulaguntzen programa kudeatzeko eskumena.

10. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Balorazio Batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, eta deialdia ebazteko proposamena egiteko. Honako hauek osatuko dute batzordea: Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria (batzordeko presidentea izango da) eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak arlo horretan bertan izendatutako bi teknikari (horietako bat idazkaria izango da). Batzorde horrek Faturako Hobekuntza Teknikorako Zentroko langileen aholkularitza izango du, dirulaguntza ebazteko erabilitako kirol-irizpideei dagokienez.

2.– Era berean, Balorazio Batzordearen bileretara bertaratu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, aztertu beharreko gaien inguruko jakintza espezifikoa duten pertsonak, bertaratuen gehiengoak onartuz gero.

3.– Balorazio Batzordea eratzekoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan ezarritakoa beteko da.

4.– Balorazio Batzordearen osaketa eragingarria EHAAr argitaratuko da, eratu aurretik, interresa duen edozeinek aukera izan dezan bere errefusatze-eskubidea baliatzeko, lege ezarritako egoera eta baldintzetan.

5.– Balorazio Batzordeak egokitzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, aurkeztutako eskabideak behar bezala aztertu ahal izateko beharrezkoa dela irizten badiu; era berean, beharrezkotzat jotako txosten teknikoak ere eskatu ahal izango ditu.

6.– Batzorde horrek ebazpen-proposamen ziodun bat egingo du, ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari helaraziko dio.

11. artikulua.– Baloratzeko eta hautatzeko irizpideak.

Balorzio Batzordeak deialdi honen 2.1.a artikuluan ezarritako ildoan aztertuko ditu jasotako eskabideak eta zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu, baremo eta irizpide hauen arabera:

1.– Probaren maila (55 punturaino).

– Programa olimpikoa: 30 punturaino:

- Proba olimpikoa: 30 puntu.
- NBOk aitortutako nazioarteko federazio baten proba ez-olimpikoa: 7,5 puntu.
- NBOk aitortu gabeko nazioarteko federazio baten proba ez-olimpikoa: 0 puntu.

– Lehiaketa-maila: Kategoria gorenekoa bada, 10 puntu. Bestela, 0 puntu.

– Egutegi ofiziala. Nazioarteko Federazio baten egutegi ofizialean agertzea, 15 puntu. Agertzen ez bada, 0 puntu.

2.– Kirolarien maila (10 punturaino).

– Azken 10 urteetako nazioarteko parte-hartzearen jarraitutasuna (5 punturaino):

- 7 parte-hartze baino gehiago azken 10 urteetan: 5 puntu.
- 4tik 7 parte-hartzera azken 10 urteetan: 2,5 punturaino.
- Parte-hartze 1etik 3ra edo gutxiago azken 10 urteetan: 0 puntu.

– Eusko Jaurlaritzaren edo Kirolen Kontseilu Gorenaren goi-mailako kirolarien zerrendetan dauden euskal kirolariak (5 punturaino):

- Banakako kirolak: kirolari 1, 5 puntu.
- Talde-kirolak: 2 kirolari edo gehiago, 5 puntu; kirolari 1, 0 puntu.

3.– Aurrekontu-faktoreak: 2 lehiaketak gehienez (25 punturaino).

– Lekualdatutako kirolarien eta langile teknikoen kopurua (15 punturaino): puntu 1 pertsonako, 15 punturaino gehienez. Gehienez, kirolarien baloraziorako, 13 puntu eta, teknikarien baloraziorako, 2 puntu. 7 kirolariko teknikari bat baloratuko da, eta gehienez 2 teknikari.

– Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (10 punturaino).

• Europa:

- 1.000 km-raino = puntu 1.
- 1.000 - 2.000 km = 2,5 puntu.
- 2.000 km < = 5 puntu.

• Afrika, Amerika, Asia: 6 puntu.

• Ozeania: 10 puntu.

4.– Jardunaldi- edo proba-kopurua. 2 lehiaketak gehienez (10 punturaino).

– 2 lehiaketak: 10 puntu.

– Lehiaketa bat: 5 puntu.

Eskaera bakoitzean 2 lehiaketen balorazioa egingo da. Erakunde eskatzaileak maila gorenekoak aukeratuko ditu.

5.– Emakumeek ordezkariak txikia duten kiroletan emakumeen parte-hartzea sustatzen duten lehiaketak direnean. Ordezkariak txikia dela joko da dagokion euskal federazioan emakumeen lizentzien kopurua % 50 baino txikiagoa bada (20 punturaino).

12. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Agindu honen babesean emandako dirulaguntzak bateratu daitezke beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek helburu bererako emandakoekin, bai eta diruz lagundutako jarduera gauzatzean sortutako beste edozein sarrera edo baliabiderekin ere, baldin eta guztiak kontuan hartuta jarduerak erakunde onuradunari dakarkion kostua gainditzen ez bada, eta agindu honen 3.2 artikuluan ezarritako salbuespenarekin. Gain-finantzaketarik badago, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako aurrekontua orekatu arte.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko ebazpena Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak eman eta jakinaraziko du balorazio-batzordek helarazitako proposamena aztertu ondoren, sei hileko epean, deialdia egiteko agindu honek indarra hartzen duen egunetik aurrera. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

2.– Ebazpen-epea igarota, interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsi zaiola ulertuko da, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

3.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, agindu honen 8. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar bada, ebazpena emateko epea eten egingo da, izapide horrek eskatzen duen bezainbat denboraz, jakinarazpena jaso eta horri erantzuteko epearen arabera.

4.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30. artikuluan eta 39/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoarekin bat, jakinarazpena egindakotzat joko da haren edukira iristen den unean. Kasuan-kasuan ezarritako epealdia hasiko da zenbatzen jakinarazpenaren xede-egintza jaso dela adierazteko sinadura elektronikoaren hurrengo egunetik aurrera.

Jakinarazpenaren xede-egintza erakunde interesdunaren edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren eskura (aipatutako dekretuak adierazten duen helbide elektronikoan) jartzen denetik hamar eguneko epea igaro bada eta erakunde edo pertsona horrek ez badu jakinarazpen horren edukira jo, jakinarazpen horri uko egin diola ulertuko da. Halakoetan, izapidea gauzaturikotzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, salbu eta, ofizios edo pertsona edo erakunde hartzaileak hala eskatuta, eduki horietara jotzeko ezintasun tekniko edo materialik egon dela egiaztatzen bada.

Interesdunak gailu elektroniko bat edo helbide elektroniko bat eman ahal izango du jakinarazpenen oharrak bidaltzeko.

5.– Jakinarazten den ebazpenaren kontra, edo ebazteko epea inongo ebazpenik gabe igarotakoan, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat. Dena dela, uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera ere izan dezakete.

14. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

Bi alditan ordainduko da dirulaguntza. Lehenengo ordainketa 2021ean egingo da, dirulaguntza onartu ostean, 15.b) artikuluan ezarritako epea berariazko uko-egiterik gabe igaro ostean. Onartutako zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamarri dagokion zenbatekoa emango da lehenengo ordainketa horretan. Bigarren ordainketan, gainerako zenbatekoari dagokiona, 2022an egingo da, dirulaguntza 16. artikuluan xedatutako moduan justifikatu ondoren.

Erakunde onuradunek egunean izan behar dituzte zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntza-itzultzearen ordainketak.

Administrazioak laguntzak eta dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuraduna Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistro Telematikoan sartuta egon behar da. Izena emateko edo datuak eguneratzeko Hirugarren Erregistro Telematikoaren web orri hau erabili <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek beti bete beharko dute Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan araututako betebeharren erregimena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua– 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak; zehazki, honako hauek bete beharko dituzte edozein kasutan ere:

a) Diruz lagunduko den jarduera egitea.

b) Esleitutako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean ez badiote dirulaguntzari idatziz eta espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko da.

c) Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren emate-ebazpenarekin bat, aurkeztutako aurrekontuan adierazitako lehiaketetatik eratorritako garraio-, ostatu-, ekipaje- eta logistika-gastuak ordaintzeko erabili behar da dirulaguntza.

d) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa eman behar zaie, haiek hala eskatuz gero beren funtzioen jardunean.

e) Jarduera beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen bidez finantzatu dela jakinarazi behar zaio dirulaguntza ematen duten organoari. Adierazitakoaren berri izan bezain laster jakinarazi behar zaio, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak izatea onuradunari kasu bakoitzean aplikatzeko zaien merkataritza-legeriak eta sektorekoak eskatutako baldintzetan, eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatutako kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko oro, egiaztatze- eta kontrol-jardun egokia bermatzeko.

g) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapenak eta kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

h) Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza gonbidatzea jardunaldia aurkezteko egingo diren ekitaldi publiko guztietara, eta jarduera gauzatzen den artean ikusteko moduko tokian adieraztea Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso duela jarduerak, dirulaguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; hala bada, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten dokumentu guztietan adierazi beharko dute hori.

i) Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekitaldi guztietan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak agintzen duenari jarraituz. Gizon eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez dagoela bermatzea.

j) Jasotako funtsak itzultzea deialdi honen araudian aurreikusitako kasuetan.

16. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

Justifikazioak bide elektronikoz aurkeztuko dira 2022ko martxoaren 1a baino lehen, agindu honen 5. artikuluan ezarritako jarraibideei jarraituz eta dirulaguntzen justifikazioak aurkezteko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 69. artikulutik 75.era bitartean ezarritako kontuan hartuta.

Bide elektronikoz aurkezteko egiaztagiria:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzekeo memoria zehatza; zer jarduera egin eta zer emaitza lortu diren adierazi behar da.

b) Jatorrizko fakturen bidez eta zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazioan frogabaliokidea duten edo administrazio-efikazia duten gainerako jatorrizko agirien bidez egiaztatuko dira gastuak. Faktura elektronikoen bidez ere egiaztatu ahal izango dira gastuak, baldin eta zerga-arloan onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte, betiere.

Faktura eta dokumentu guztiak, eskaneatu eta gero, espedientera igo behar dira. Aurkezten diren fakturak dirulaguntzan emandako kopurua justifikatu behar dute.

c) Dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzen arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesa izan dutela berariaz adierazten duten dokumentu guztien aleak (dokumentu grafikoak, fotografikoak edo ikus-entzunezkoak).

d) Jarduera-gastuen zenbatekoaren adinako diru-kopurua egiaztatuko da gastu-zerrendan (V. eranskina).

e) Ekitaldian parte hartzeak eragindako kostu-kontuen aurrekontu gauzatuta; diru-sarrerak eta gastu guztiak adierazi behar dira bertan. Bereziki jaso beharko da helburu berarekin eskuratutako gainerako laguntzen zerrenda, eskabideak aurkezteko unean haiek eraginkor izango ziren jakiterik ez bazegoen (IV. eranskina).

17. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira ostatua, ekipajea, logistika eta garraioa, parte hartzen den lehiaketetatik eratorriak, bai eta DLoren 31. artikuluan ezarritakoak ere, hau da, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta 2021ean egiten direnak.

Diruz lagundutako gastuen eskuratzeko-kostuak ez du, inola ere, merkaturako balioa gaitzudituko.

2.– Egindako gastutzat hartuko dira justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu direnak.

3.– Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratuen Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak, onuradunak, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik, hornitzaileei gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko die, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago halako zerbitzurik eskaintzen duen nahiko erakunde, edo salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeratzeko (justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean aurkeztuko dira), efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta txosten baten bidez berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean.

4.– Zergak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta onuradunak egiazki ordaintzen baditu. Ez dira inoiz diruz lagundu daitezkeen gastuak izango zeharkako zergak, baldin eta errekuperatu edo konpentsatu badaitezke; errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

Hauek ezin izango dira inolaz ere diruz lagundu: banku-kontuetako interes zordunak; interesak, errekaruak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak; prozedura judizialen gastuak.

5.– Onuradunak zeharkako kostuak egotziko dizkio diruz lagundutako jarduerari, arrazoiz dagoen partean, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauekin bat, eta, betiere, jarduera egiten den aldiari badagozko kostu horiek.

18. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –dirulaguntzaren xedea bete bada, betiere– edo, hala badagokio, beste erakunde publiko zein pribatu batzuetatik bestelako dirulaguntza eta laguntza bateragarriren bat jaso bada, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da dirulaguntzen araudi erregulatuaren ezarritako baldintzetan eta dirulaguntzen arauak ezarritako onuradun izateko gutxienezko eskakizunak zaintzen badira. Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak likidazio-ebazpena emango du, non doituko baitira esleitutako dirulaguntzen zenbatekoak.

19. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan ezarritakoak dira ez-betetzeak; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikularen bidez onartu zen testu bategin hori.

2.– Horrelako ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta horiei dagozkien legeko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, betiere xedapen hauen arabera: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren azaroaren 38/2003 Legearen 37.1 eta 37.2 artikulua; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 eta 53.2 artikuluetan ezarritako baldintzak; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutari ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzei buruzko erregimen orokorra arautzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. artikulua.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datu pertsonalak babestearen arloko informazio-klausula.

– Arduraduna: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza.

– Helburua: kirolaren arloko laguntzen eta dirulaguntzen eskaerak kudeatzea.

– Legitimazioa: interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak erabili bitartean egiteko bat betetzeko behar den tratamendua (Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen testu bategina).

– Hartzailleak: arlo honetan eskumenak dituzten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

– Eskubideak: zuk zure datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta tratatuak izateko mugak jartzeko eta aurka egiteko ere, informazio gehigarrian esaten den moduan.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jo web-orri honetara: <https://www.euskadi.eus/rgpd/0130009>

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 9a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2021eko uztailaren 1a, osteguna

I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEA

DIRULAGUNTZAK, PARTE HARTZEKO 2021EAN EGINGO EDO HASIKO DIREN KIROL-LEHIAKETA OFIZIALETAN, NAZIOARTEKO ESPARRUA ETA IZAERA DUTENETAN, KATEGORIA ABSOLUTUAN, ETA EMAKUMEZKOEN LIGA NAZIONALETAN, KATEGORIA ABSOLUTUAN.

ESKABIDEA NORK AURKEZTEN DUEN

Titularra Ordezkarria

ENTITATEAREN DATUAK

 TITULARRA

Izena / Erakundearen izena IFZ/IFKn ageri den izen bera izan behar du:

.....

Telefonoa:

 ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen izena

.....

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua:

Gizonezkoa Emakumezkoa

IFZ edo NAN:

Telefonoa:

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO OHARRA

Posta elektronikoa (puntu eta koma bidez bereizita)

Mugikorraren zenbakia (sms) (puntu eta koma bidez bereizita)

ADIERAZI ZER HIZKUNTZATAN NAHI DITUZUN JAKINARAZPEN, KOMUNIKAZIO ETA OHARTARAZPENAK

Euskara Gaztelania

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Titularraren betebeharrak fiskalei buruzko informazioa duen Zerga Administrazioa zein herrialdetan / probintzian dagoen:.....

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

BESTE DIRULAGUNTZEN ADIERAZPENA

- Erakundeak ez dela jasotzen ari xede honekin berarekin inongo administrazio publiko edo erakunde pribaturen dirulaguntzarik.
- Erakundeak dirulaguntza bat eskatu diola administrazio publikoren edo erakunde pribaturen bati eta eman egin diotela (puntu honetako datuak III. eranskineko agirian zehaztu behar dira)
- Erakundeak dirulaguntza bat eskatu diola administrazio publikoren edo erakunde pribaturen bati eta ebazteke dagoela (puntu honetako datuak III. eranskineko agirian zehaztu behar dira)

ERREGISTROAN INSKRIBATUTA EGOTEAREN ADIERAZPENA

- Erakunde eskatzailea legez eraturik dagoela, eta Eusko Jaurlaritzaren kirol-erakundearen erregistroan izena emanda (beste erregistro batean bada, adierazi zeinetan):

.....

Data:.....

BESTE ADIERAZPEN BATZUK

Hedatzeko edozein bitartekotan adieraziko duela erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza izan duela ekitaldian parte hartzeko, eta ekitaldian parte hartzearekin lotutako ekitaldi publikoetara gonbidatuko duela Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza, dirulaguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; azken kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten agiri guztietan adierazi beharko dute hori.

Erakundeak ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ezta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, batez ere sexuaren bereizkeriaren ondoriozkorik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren arabera.

DATU PERTSONALAK BABESTEA

- Arduraduna: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza.
- Helburua: 2021ean kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan dirulaguntzak kudeatzea
- Legitimazioa: interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak erabili bitartean egiteko bat betetzeko behar den tratamendua (Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina).
- Hartzaileak: arlo honetan eskumenak dituzten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
- Eskubideak: zuk zure datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta tratatuak izateko mugak jartzeko eta aurka egiteko ere, informazio gehigarrian esaten den moduan.
- Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jo web-orri honetara: <https://www.euskadi.eus/rgpd/0130009>

II. ERANSKINA

JARDUERAREN MEMORIA

PROBAREN MAILA

Baloratu beharreko lehiaketak. Gehienez, 2 izango dira

1.
2.

Lehiaketei buruzko informazioa

1. lehiaketa

- Lehiaketaren izena:
- Lehiaketaren tokia:
- Lehiaketaren data:
- Maila goreneko proba da, dagokion nazioarteko egutegiaren barruan.:
 - Bai Ez
- Proba
 - Proba olinpikoa
 - NBOk onartutako nazioarteko federazio baten proba ez-olimpikoa
 - NBOk onartu gabeko nazioarteko federazio baten proba ez-olimpikoa
- Nazioarteko federazioaren egutegi ofizialean agertzen da:
 - Bai Ez
- Lehiaketan goi-maila duten euskal kirolariak, Eusko Jurlaritzaren edo Kirolen Kontseilu Gorenaren zerrendetan aintzatetsiak (izen abizenak, sexua, BOE edo EHAA non agertzen diren):
- Partaidetzaren jarraitutasuna azken 10 urteetan:
- Lekualdatutako kirolariak (kopurua eta izenak):
.....
- Lekualdatutako teknikariak (kopurua eta izenak):
.....
- Jardunaldiak (kopurua):
- Lehiaketa-lekua eta distantzia, kilometrotan: km
 - Europa
 - Afrika
 - Amerika
 - Asia
 - Ozeania
- Interesgarri irizten diren jarduerari buruzko beste datu batzuk:

2. lehiaketa

- Lehiaketaren izena:
- Lehiaketaren tokia:
- Lehiaketaren data:
- Maila goreneko proba da, dagokion nazioarteko egutegiaren barruan:
 - Bai Ez
- Proba
 - Proba olinpikoa
 - NBOk onartutako nazioarteko federazio baten proba ez-olinpikoa
 - NBOk onartu gabeko nazioarteko federazio baten proba ez-olinpikoa
- Nazioarteko Federazioaren egutegi ofizialean agertzen da::
 - Bai Ez
- Lehiaketan goi-maila duten euskal kirolariak, Eusko Jaurlaritzaren edo Kirolen Kontseilu Gorenaren zerrendetan aintzatetsiak (izen abizenak, sexua, EAO edo EHAA, non agertzen diren):
- Partaidetzaren jarraitutasuna azken 10 urteetan:
- Lekualdatutako kirolariak (kopurua eta izenak):
.....
- Lekualdatutako teknikariak (kopurua eta izenak):
.....
- Jardunaldiak (kopurua):
- Lehiaketa-lekua eta distantzia, kilometrotan: Km
 - Europa
 - Afrika
 - Amerika
 - Asia
 - Ozeania
- Interesgarri irizten diren jarduerari buruzko beste datu batzuk:

KIROLARIEN MAILA

Baloratu beharreko lehiaketan edo lehiaketetan kirolariek lortutako postua.

1.
2.

Lehiaketa egin ez bada, aurreko urtean lehiaketa horretan edo maila bereko edo handiagoko lehiaketetan (baleude) lortutako emaitzak..

1.
2.

2021eko uztailaren 1a, osteguna

III. ERANSKINA

AURREKONTUA (1)

GASTUAK	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Joan-etorrietarako gastuak	
Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak	
.....	
.....	
.....	
Ostatu-gastuak	
Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak / zenbat egunez	
.....	
.....	
.....	
Beste gastu batzuk. (Xehatuak)	
.....	
.....	
.....	
Guztira	

SARRERAK		
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	EGOERA
Erakunde eskatzailearen ekarpena		
.....		
Erakunde publikoen ekarpenak		
.....		
.....		
.....		
Erakunde pribatuen ekarpenak		
.....		
.....		
.....		
Beste sarrera batzuk (Xehatuak)		
.....		
.....		
.....		
Guztira		

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA

(1) Aurrekontuak orekatua izan behar du, hau da, gastuak berdin sarrerak (eskatutako dirulaguntza barne)

2021eko uztailaren 1a, osteguna

IV. ERANSKINA
AURREKONTU GAUZATUA

GASTUAK			
KONTZEPTUA	Aurrekontuan jasotakoa	Gauzatutakoa	Justifikatua
Joan-etorrietarako gastuak Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak Ostatu-gastuak Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak / zenbat egunez Beste gastu batzuk. (Xehatuak). Guztira			

SARRERAK		
KONTZEPTUA	Aurrekontuan jasotakoa	Gauzatutakoa
Erakunde eskatzailearen ekarpena Erakunde publikoen ekarpenak Erakunde pribatuen ekarpenak Beste sarrera batzuk. (Xehatuak). Guztira		

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA

V. ERANSKINA

EGINDAKO GASTUEN ZERRENDA (EGITASMOARENAK)

- A) Gastu-egiaztagiriaren hurrenkera-zenbakia.
- B) Gastu-egiaztagiri mota.
- C) Gastu-egiaztagiriaren zenbaki identifikatzailea.
- D) Gastu-egiaztagiriaren data.
- E) Gastu-egiaztagiriaren emailea.
- F) Gastu-egiaztagiriaren kontzeptua.
- G) Gastu-egiaztagiriaren diru-kopurua.

A	B	C	D	E	F	G

Ezin izango da BEZ kengarria dirulaguntza-gai diren gastutzat hartu.